

**LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, ELKARRIZKETA SOZIALA
INSTITUZIONALIZATZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZ**

Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak 2018/10/9an Elkarrizketa soziala EAEn instituzionalizatzeko Dekretu proiektua bidali du Lan Harremanen Kontseilu honetara, Kontseiluak, arautzeko duen otsailaren 23ko 4/2012 Legeko 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigorrezko txostena eman dezan.

Dekretu proiektuaren edukiaren analisi teknikoa

1.- Arauaren justifikazioa.

Dekretu proiektuaren atarikoan aipatzen denez, nazioarteko eremuko adierazpen eta gomendioek, elkarrizketa sozialaren alde egiten dute, gobernantza demokratikoko funtsezko elementutzat hartuta, batez ere Europar Batasunaren espazioan; bada, aipu horiez eta egokitasun gogoetetz gainera, Lan eta Justizia Sailak prestatutako proiektua berariaz sartzten da legealdi honetarako (2016-2020) gobernu programan hartutako konpromisoaren markoan, EAEko eremuan hiru alderdiko elkarrizketa soziala garatu eta finkatzeko juridikoki antolatutako marko iraunkorra sortzeari dagokionez, arauaren aurrekari hurbilak diren aurretiazko zenbait esperientzia eta akordio zehatzen ondoren, azalpenezko aldean nabarmentzen denez.

Aipatutako konpromisoa, hiru alderdiko izaera eta osaera duen elkarrizketa sozialeko mahaia sortuz gauzatzen da, Dekretu honen bidez mahai horren oinarritzko elementuak arautu eta garatzen direlarik.

2.- Proposatutako eremuaren oinarriak

a.- Hiru alderdiko elkarrizketa sozialak eta bi alderdikoak sustrai komuna daukate, baina kontzeptuz desberdinak dira.

Bi alderdiko elkarrizketa sozialaren oinarria, ordezkartza duten sindikatu eta enpresaburu alderdien autonomia kolektiboa aitortzean datza, alderdi hauek batez ere negoziazio kolektiboaren bidez bi aldeko akordioak sinatzeko gaitasuna dutela aitortuta.

b.- EAEn eremuan bi alderdiko elkarrizketa honi laguntzeko, bada organo iraunkor bat, Lan Harremanen Kontseilua, funts publikoek mantentzen dena baina Eusko Jaurlaritzatik eta Eusko Legebiltzarretik guztiz independentea dena, hain zuzen ere autonomia kolektibo hori inolako interferentziarik gabe gauzatu ahal dela bermatzeko.

LHKren txostena, elkarrizketa soziala instituzionalizatzeari buruzko Dekretu proiektuaren gainean



Organismo hau, ordea, enpresaburu eta sindikatu erakundeetako goi karguen bi alderdiko elkarrizketa eta negoziatorako eta negoziatio kolektiboari laguntzeko sortu zen, gizarte ekintzaileei berezkoak dituzten funtzioak euren independentziaren gutxiespenik gabe gauzatzea errazteko helburu nagusia zuela; eta izaera honek galarazi egiten ditu, ez enpresaburu eta langileentzat lotesleak diren akordioak negoziatu eta sinatzea, baina bai beste elkarrizketa eta itun mota batzuk, Gobernuaren ezin utzizko titulartasunekoak diren baina zentzu zabalean gizarte eta lan espazioa euren eraginpean hartzen duten bestelako ekimen eta erabaki batzuk, hain zuzen ere.

c.- Politika publiko soziolaboralak definitu eta diseinatzeko fasean gizarte ekintzaileen parte hartze instituzionala ahalbidertzeko herri agintariekiko lankidetzara eta elkarrizketarako maila berri hau sendotzeko, hiru alderdiko egitura arau propio baten bidez sortzea justifikatzen du, horrenbestez.

d.- Eskumen publikoen ezin utzizko izaerarekin lotutako arrazoiengatik, eratuta dagoen bezala, hiru alderdiko elkarrizketaren garapeneren helburua ez da gobernu ekintzak ordeztu edo juridikoki baldintzatzea. Honek Dekretu proiektuaren oinarritzako ezaugarrietako batzuk azaltzen ditu; adibidez, mahaiaren osaera ez da ordezkartzarik handieneko gizarte ekintzaileen proportzioaren arabera, herri agintariekiko elkarrizketa eta adostasun bilaketa funtzio berri hau ez baita loteslea eta ez baitago juridikoki mugatuta. Horregatik adierazten da, elkarrizketa sozialeko mahaiaren barruan akordiorik ez izateak, ez duela galaraziko, ez etengo, dagokion arau xedapen, plan edo ekimenaren tramitazioa.

3.- Elkarrizketa sozialeko mahaiaren funtzionamendua eta eratze formala.

Dekretu proiektuak hiru kapitulu eta azken xedapen bat ditu. Azken xedapenean sei hilabeteko epea ezartzen da, Dekretua aldarrikatzen den edo indarrean hasten denetik, elkarrizketa sozialeko mahai formalki eratzeke.

a.- Lehen kapituluaren mahaiaren izaera definitzen da: hiru alderdiko organoa da eta Jaurlaritzaren egitura organikoaren arabera momentu bakoitzean lan eskumenak dituen sailari atxikirik dago. Mahaiaren funtzioak ikuspegi orokorretik ezartzen dira. Edozertara ere, arauak aurreikusten duenez, aztertuko diren gai zehatzak, mahaiak jarduera aldi bakoitzaren hasieran onartu beharko duen urterako lan planean identifikatu beharko dira. Horrenbestez, mahaiaren funtzionamendua, aurretiaz itundutako bere lan agendaren definizioarekin lotzen da, lotu ere.

b.- Mahaiaren osaerari dagokionez, Dekretu proiektuak ezartzen duenez, Jaurlaritzaren ordezkartzat, lan eta lan harreman, enplegu, industria, garapen ekonomiko eta hezkuntza gaietan eskumenak dituzten sailerako titularrek parte hartuko dute, lan eta lan harremanetako gaietako eskumena duen sailaren titularra mahaiaren burua izango delarik,

LHKren txostena, elkarrizketa soziala instituzionalizatzeari buruzko Dekretu proiektuaren gainean



Aztertuko diren gaiak aipatutakoak ez, baina beste batzuk diren momentuetan, beste sail batzuetako titularrek parte hartzea aurreikusita dago; honek esan nahi du Jaurlaritzak elkarrizketa sozialeko mahaian organo kolegiatutzat parte hartzen duela, nortasun juridiko bakarraren printzipioaren arabera.

Beste alde batetik, gizarte ekintzaileei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu eta enpresaburu erakundeek parte hartuko dute soilik. Edozertara ere, Dekretu proiektuak erakunde hauek jarduera aldi bakoitzaren hasieran sartuko direla aurreikusten du; horretarako mahaiko buruak mahaia urteko lehen bilerara erakunde guztiei dei egin behar die, mahaian sartzeko asmoa duten ala ez espresuki adieraz dezaten. Zentzu honetan, dei egindako erakundeetako edozein bileran agertzen ez bada, espresuki adierazi beharrik gabe parte hartzeari uko egin diola interpretatuko da; salbuespen gisa, ordea, kide direnen aho batezko akordioz, edozein momentutan elkarrizketa sozialeko mahaian ordezkariarik handieneko erakunde bat sartzea ere aurreikusita dago.

c.- Elkarrizketa sozialeko mahaia lanak urteko lan planaren arabera garatuko dira, plan hori, hertsiki hartuta, aldi bakoitzeko lehen akordio formala delarik. Ohiko funtzionamendurako lan taldeak sortzea espresuki aurreikusita dago, taldearen burua gaiaren arabera eskumena duen sailaren ordezkaria izango delarik. Funtzionamendu arau honek ez ditu aldatzen elkarrizketa sozialeko mahaia eskumen formalak, akordioak beti ere mahaia hartzen baititu, kide guztiak aho batez erabakita, kontuan harturik bere funtzioa zein den eta helburua, formalki Jaurlaritzaren eskumena diren erabaki politikoen eduki desiragarria itundu eta adostea dela, erabaki politiko horien eskumena, aurreko paragrafoetan adierazi den bezala, Jaurlaritzarentzat ezin utzizkoa delarik.

Dekretu proiektuak beste aukera bat ere jartzen du, zentzu hertsian akordiotzat hartu gabe ere: zerbait aho batez erabakitzen ez denean, elkarrizketa sozialeko mahaia osatzen duten hiru alderdien (hau da, Jaurlaritza, enpresaburu eta sindikatuak) zenbait ordezkariaren jarrera bateratua, mahaia azken erabakitzat formalki dokumentaturik gera daiteke, alderdi horietako batek hala eskatuta.

Txosten Batzordeko kideen gogoeta partikularrak

Analisi tekniko hau 2018ko urriaren 22an eman zitzaizen Txosten Batzordeko kideei, egokitzen jotzen zizuten Dekretu proiektuari buruzko alegazioak urriaren 25a baino lehen aurkezteko eskatuz, egun horretan Batzordea osatzen duten kideei alegazio horiek bidaliko baitzitzaizkien.

Epe hori igarota, LAB sindikatuaren ordezkariak Txosten Batzordeko kideen alegazioak jaso dira bakarrik; alegazio horiek ondoren azaltzen dira:

LAB sindikatuak, LHKko kidea den aldetik, eskaturiko alegazioak egin nahi ditu **EAE-KO ELKARRIZKETA SOZIALA INSTITUZIONALIZATZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZ.**

Esan beharra dago, alegazio hauek, funtsean, sindikatu honek Administrazioak hala eskatuta aurkeztu zituen berberak direla.

I.- DEKRETU PROIEKTUA AURKEZTEN DEN TESTUINGURUA ETA BALIOESPEN OROKORRA

Atarikoan adierazten denez, arau proposamena, aurreko urteetan garatutako elkarrizketa sozialeko ereduari oinarritzen da, eredu horri jarraipena eman eta instituzionalizatzeko asmoz.

Ataririkoa adierazpenak kritikarik gabeko autokonplazentziazko moduan aipatzen du, gaur arte elkarrizketa sozialeko mahaiak ekarri duen emaitza.

“Eusko Jaurlaritzak azkeneko hiru legegaldietan (IX-XI) herri Administrazio eta enpresaburu eta sindikatu erakundeen arteko elkarrizketa soziala nabarmenki bultzatzen izan du”,

Hala, Dekretu proiektuak jarraipenezko ereduak planteatzen du, orain arte garatu den elkarrizketa sozialeko ereduaren funtsezko ezaugarri batzuk bat ere aintzat hartu gabe:

- Gure Erkidegoko gehiengo sindikalak ez duela bertan parte hartu.
- Aurkezteko moduko emaitzarik ez dagoela eta emaitza horietako batzuen eraginkortasuna, adibidez gutxiengoan sinatutako hitzarmen kolektiboak bultzatzea proposatzen duenarena, zalantzarikoa dela.
- Gobernua ugazaben nahietara argi eta garbi egokitzen dela eta enpresaburuekin akordioak sinatzen dituela, sindikatuak bazterturik.

Honela, Dekretu proiektuaren edukiak begi bistan uzten du, benetako elkarrizketa soziala garatzeko borondate politikorik ez dagoela, elkarrizketa hori ikuspegi formalistatik eta erabiltzeko asmoz ikusten dela, helburu nagusia politika publikoei lagun egin eta legitimazioa ematea delarik.

Ugazaben nahietara egokitzen den eta enpresaburuekin sindikatuak baztertuta akordioak egiten dituen Jaurlaritza baten ondorioz elkarrizketa sozialeko azken mahaiak hautsi zenetik (honek guztiak gure sindikatuak proposatutako elkarrizketa sozialari buruz egina zuen eta egiten duen balioespena berresten du), akordio hura sinatu zutenek ez dute inolako autokritikarik egin eta ez da bermatzen, beraz, orain proposatzen den mahaiak ez duela funtzionamendu berbera izango.

Prestatzeko prozesua bera horren erakusgarria da. Dekretu proiektua sindikatu erakundeei postaz bidaliz aurkeztu zaie eta alegazio tramite baten bidez parte hartzeko eskatu.

Gero azalduko denez, Dekretuaren edukiak ere argi uzten du jarrera politiko hau, osaera, helburuak eta erabakiak hartzeko gehiengoak arautzen dituenean.

II.- ELKARRIZKETA SOZIALAREN HELBURUAK

LAB sindikatuaren ustez, proposamenean agertzen diren helburuen oinarrian elkarrizketa sozialaren ikuskera formalista dago. Jaurlaritzaren ekimenei kontsulta eta adierazpenen bidez laguntzeko balio du soilik, euskal egoera sozioekonomikoa eta lan egoera gaur egun baldintzatzen dituzten gaiei ekin gabe.

Inongo zalantzarik balego edo, alderdientzako abisutzat, 3.5 artikulua espresuki honako hau dio: “Mahaiaren barruan adostasunik ez izateak, ez du inolaz ere galaraziko, ez etengo, dagokion araudi, plan edo ekimena tramitatzea”.

Elkarrizketa sozialak, beste fase batzuetan bezala, garatzen ari den testuinguruaren arabera izan behar du; horregatik, gure ustez, honako gai hauei ekin behar die:

- Elkarren segidako lan erreformen ondoriozko lan harremanen gaurko eredia, erreforma horien ondorioz enpresaburuen alde bakarrekotasuna indartu baita, negoziazio kolektiboari balioa kenduta. Ikuspegi horretatik, elkarrizketa sozialak, enpresaburuen boterea mugatzeko eta ekonomia gehiengo sozialaren aldeko kontrol demokratikoak lotuta egoteko tresna izan beharko luke.

- Marko autonomikoa agorturik dago eta ez du bat ere gaitasunik lan erreformen ondorioetan tresnez eta erabakitze gaitasunez eraginik izateko, ezta enplegu politika integral baten gainera erabakimen osorik ere. Negoziazio kolektiboa bera ezin izan da sendotu eta garatu gure eremuan eta bertan, zentralizatzeko asmoa duen araudiaren inboluzioa gertatu da. Horri erantzuteko gehiengo sindikalak 2017ko urtarrilean Negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko lanbide arteko akordioa sinatu zuen.

Akordio horren xedea, EAEn eremuan negoziazio kolektiborako gure markoa, estatu eremuko hitzarmen kolektiboetan elkarrizketa sozialeko mahaia izeneko kide izan diren erakunde berberak sartzen ari diren negoziazio kolektiboa gure eremuan ixteko klausulen kontra blindatzea da, Jarrera horretatik, mahai horrek nekez lagunduko du, atarikoan adierazten denez, euskal lan harremanen sistema indartzerakoan.

Ikuspegi horretatik, elkarrizketa sozialak zailtasun, aukera eta konpromiso politikoei ekiteko tresna izan beharko luke, lan harreman eta gizarte babeseko euskal markoa eratzeko.

Gai honetan Autogobernu Ponentzian adostutako terminoek, bidea ireki beharko dute, gizarte eta ekonomia ekintzaileek parte hartuta, lan harreman eta gizarte babeseko gure eredia erabakitzea ahalbidetzen duten oinarriak jarri ahal izateko.

III.- OSAERA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Proposatutako elkarrizketa sozialak, osaera eta erabakiak hartzeko modua arautzen dituenean, adierazitako arazoei ihes egiten die eta, arazo horiei ekin gabe, proposatzen duenaren neurrirako elkarrizketa soziala instituzionalizatzen du.

- **Gehiengo sindikalaren parte hartzerik gabe.** Horretarako arautzen den osaeran ez dira kontuan hartzen sindikatu erakundeen hauteskunde audientzia eta emaitzen araberako proportzionaltasuna. Honi buruzko aipamenik ez dago, behinik behin. Gehiengo sindikalak parte hartzen ez duen elkarrizketa sozialeko mahaiaren irudikeria sortu nahi da horrela.

Lan zuzendariak bere txostenean argiro adierazten duenez, Jaurlaritzak hautatu duen aukera, hauteskundeetako ordezkariak mailaren araberako proportzionaltasuna ez ezartzea izan da.

Nekez aurkituko da beste eremu instituzional batzuetan, parte hartzen duten erakundeen hauteskunde araberako neurtutako ordezkariak maila aintzat ez hartzea, kasu honetan sindikatuei dagokienez egiten den bezala.

- **Gutxiengo sindikalaren gutxiengoa duten erabakiak.** Aurreko Dekretu proiektuak gehiengo bi aintzat hartzen zituen erabakiak hartzeko, ahobatezkotasuna, oro har, eta “salbuespen gisa” ugazabek, Jaurlaritzak eta parte hartzen duen sindikatuetakoa batek osa zezaketena.

Aurreko Dekretu proiektuak, “salbuespen gisa” terminoak zuen izaera ireki eta zehaztu gabeagatik jaso zituen kritikak, termino hori ezabatuz ebatzi dira, horrela erabakiak Jaurlaritzak, ugazabek eta parte hartzen duten sindikatuetakoa batek hartzea normal bihurtuz, erabaki hori “Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren erabakitza dokumentaturik geratu ahalko” delarik.

Oraingo idazkerak are argiago uzten du, alderdi sindikalarekiko akordioari ematen zain garrantzi txikia.

Honegatik guztiagatik, LAB sindikatuaren ustez, elkarrizketa soziala Euskal Autonomia Erkidegoan instituzionalizatzeko Dekretu proiektua baztertu egin beharko litzateke.

Txosten Batzordeko kideen jarrerak

Txosten Batzordea 2018ko urriaren 31n bildu zen eta Confebask, CCOO eta UGTren ordezkariak hautatutako pertsonak, Dekretu proiektuaren eduki osoarekin bat datozela eta horregatik hari buruzko alegaziorik aurkeztu ez dutela adierazi dute.

LHKren txostena, elkarrizketa soziala instituzionalizatzeari buruzko Dekretu proiektuaren gainean



Beste alde batetik, LABek hautatutako pertsonak aurkeztutako alegazioak berretsi ditu, Dekretu proiektua nola kudeatu den ez dakiela adierazi du eta baztertu beharko litzatekeela iritzi dio.

Era berean, bai CCOOk hautatutako pertsonak eta bai UGTk hautatutakoak, argi utzi nahi dute euren erakundeek nahiago izango zuketela, elkarrizketa soziala parte hartze instituzionalari buruzko Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez gauzatu balitz; honek, ordea, ez du aldatzen Dekretu proiektuari buruzko euren aldeko botoa.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluak elkarrizketa soziala EAEn instituzionalizatzeko Dekretu proiektuarekin ados dagoela adierazi du, aldeko botoa Confedebaskek, CCOOk eta UGTk hautatutako pertsonak emanik eta kontrako botoa LAB erakundeak hautatutako pertsonak eman duelarik.

Bilbo, 2018ko azaroaren 7a.